

VI.—Eguskitza jaunak adibide batzuek egiten dizkijo Azkue jaunaren *Morfologia*'ri atzizki *buru, giltz, ol, ola, pen, ben* gaibidetzat artu-ta.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzañaldia.

---

### **Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Ori- ñaren 27'an.**

Emen aipatzen diran euskaltzain jaunak batzañaldira datoz: Azkue, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza, Lakonbe eta euskaltzain-ordetzko Oleaga eta Ormaetxea.

I.—Azkue jaunak esan digu: Bizkai'ko Aldundiko batekin egon dala oraintxe *Liceo* izenez jaso bear dan etxe ederean Euskaltzaindiarentzat tokitxo bat eskaturik; bañan es du oraindik ezertxo ere lortu.

II.—Euskaltzaindiak badaki, Gipuzkoa'ko Aldundiak euskeraren aldezko agindu batzuek eman dituela bere mendekoen arterako. Auxe ondo jakin bear da, Bizkai'an ere Euskaltzaindiaren bitartez, lortu al izateko . . .

III.—Aita Intza'k esan digu: Auritz'ko euskal-jayak uñerutzen asi dirala ta jakin nai duela zein diran Bizkai'an *Euskeraren adiskideak*'ko bazkideak, abei, jai oyetarako dei egiteko.

Emakume artean ere iratsi nai luke aita Intza'k *Euskeraren adiskideak* deitzen dan bazkuna ta artarako araudi bat irakuri digu. Euskaltzaindiak ontzat eman du.

IV.—Eguskitza jaunak eman digu *Jangoiko-Zale*'k egin dituen Kristau-ikasbide jayen beñi. Ume asko izan da ta sari ederañ banatu dira oyen artean. Euskaltzaindiaren zorionak.

V.—Aita Intza'k esan digu Muñoa jaunaren ikastetxeko lanak: aurtengo urte beñetik Oñila-arte 104 mutil-aziyak gabazko ikastaroan izan dira ta denai euskeraz irakatsi zaye.

Egunezko ikastaroan 84 mutiko dabiltz ta oraintxe. Jesusen Zerurako Igokundean jai berezi bat izan dute, Gogoz entzun du auxe ere Euskaltzaindiak.

VI.—Aita Intza berak irakuñi dizkigu Aita Justo Maria Mokoroa'k Tolosa inguruan aurkitu dituen itz euskaldunak.

VII.—Motrikun idorotako aita Mendiburu'ren esku-idatz lan baten itzaurea Ormaetxea jaunak irakuñi digu.

VIII.—Eguskitza jaunak Azkue'ren *Morfologiari* adibide batzuek egin dizkio: *-la, -le, tzale, tale gaibidetzat artu-ta*.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta ototzez amaitu da batzaraldia,

---

## Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Oñila'ren 28'an.

Batzaraldian bildu diran jaunak abek dira: Azkue' Urkijo, Lande'etxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza ta Lakonbe euskaltzainiak eta Ormaetxea ordezkoa.

I.—Azkue jaunak bere lantxo bat irakuñi digu: Luziano Bonaparte'k egindakoen beñi batzuek emateko: Bonaparte'ren lanak izen auxe du: Observaciones de la Lengua Vasca.

II.—Ormaetxea jaunak idazki bikain batez erantzuten diyo Navarro Tomas'i, onen *ejercicios fonéticos*